

A N T

Z E R

K I A

T E A

T R O

Vitoria-Gasteizko Nazioarteko
XXXVIII. Antzerki Jaialdia
XXXVIII Festival Internacional
de Teatro de Vitoria-Gasteiz

Udal Antzoki Sarea
Red Municipal de Teatros
2013

ABONUAK ABONOS



JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL



FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA
TEATRO EN FAMILIA



IKUSKIZUNA IBAIONDON
EL ESPECTÁCULO EN IBAIONDO



JIM AKTUAL
ABONUA ABONO

LIBRÍA OCTUBRE


09 asteazkena miércoles

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

NE M' OUBLIE PAS

INAUGURAZIOA INAUGURACIÓN

PHILIPPE GENTY

 orrialdea-página 4-5

11 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EMILIA

CLAUDIO TOLCACHIR

 orrialdea-página 6-7

13 igandea domingo

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

RÊVES D'ÉTÉ

UDAKO AMETSAK- SUEÑOS DE
VERANO. CIRCO PITANGA

 orrialdea-página 36

16 asteazkena miércoles

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE
MATAUCO ANTZOKIA

TEMPESTAD

BARCO PIRATA


 orrialdea-página 33

17 osteguna jueves

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

FARSAS Y ÉGLOGAS

COMPAÑÍA NACIONAL DE TEATRO
CLÁSICO Y NAO D'AMORES

 orrialdea-página 8-9

18 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

KEPA JUNKERA, ARA MALIKIAN & LA ORQUESTA EN EL TEJADO

UN VIAJE EN EL TIEMPO

orrialdea-página 10-11

20 igandea domingo

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

CONSTELACIONES

ARACALADANZA


 orrialdea-página 37

24 osteguna jueves

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

LEBENSRAUM

JAKOP AHLBOM

 orrialdea-página 12-13


25 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EL RÉGIMEN DEL PIENSO

LA ZARANDA

Teatro Inestable de Andalucía la Baja

 orrialdea-página 14-15

27 igandea domingo

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

OTRO GRAN TEATRO DEL MUNDO

COMPAÑÍA NACIONAL DE TEATRO
CLÁSICO Y UROC TEATRO

 orrialdea-página 38

30 asteazkena miércoles

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EL SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO

BALLET CARMEN ROCHE

orrialdea-página 16-17

31 osteguna jueves

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

OPPERETTA

COR DE TEATRE

 orrialdea-página 31

2013

AZAROA

NOVIEMBRE

01 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MARIDOS Y MUJERES

TEATRO DE LA ABADÍA

a orrialdea-página 18-19

03 igandea domingo

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

PULGARCITO

TEATRO PARAÍSO

a orrialdea-página 39

07 osteguna jueves

08 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

BIENVENIDO A CASA

PEQUEÑO TEATRO DE
MORONDANGA

orrialdea-página 20-21

09 larunbata sábado

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MISÁNTROPO

KAMIKAZE PRODUCCIONES

a orrialdea-página 22-23

13 asteazkena miércoles

TEATRO JESÚS IBÁÑEZ DE
MATAUCO ANTZOKIA

MEMORIAS DE UNA PULGA

SOL PICO

a orrialdea-página 34

15 ostirala viernes

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

QUIÉN TEME A VIRGINIA WOOLF

TEATRE ROMEA CATALUÑA

a orrialdea-página 24-25

17 igandea domingo

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

CHARLIE

FERNANDO HURTADO

a orrialdea-página 40

20 asteazkena miércoles

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

HITZAK, BESTERIK EZ (euskeraz)

HIKA TEATROA

orrialdea-página 26-27

21 osteguna jueves

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

AVENTURA

ALFREDO SANZOL Y T DE TEATRE

a orrialdea-página 32

23 larunbata sábado

TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

NADA TRAS LA PUERTA

TRASPASOS KULTUR
CENTRO DRAMÁTICO NACIONAL

a orrialdea-página 28-29

HAURTZOAK

PROIEKTUA

PROYECTO BEBES

TEATRO FEDERICO GARCÍA
LORCA ANTZOKIA

15 ostirala viernes

16 larunbata sábado

SENSACIONAL

Instalación de imagen y sonido

orrialdea-página 42

17 igandea domingo

QUE SI QUE NO

Cía. Drammatico Vegetale

TALLER

HABITANDO

EL BOSQUE

Taller de Arquitectura Maushaus

orrialdea-página 43

23 larunbata sábado

KANPOALDEAN

TOKI BAT DA

(euskeraz)

Compañía Arena en los Bolsillos

orrialdea-página 44

24 igandea domingo

HA DEDE

Compañía Theatre de Spiegel

TALLER TUN TUN

Acercamiento a la percusión

orrialdea-página 45

ANTZERKIA ZABALTZEN

TEATRO ABIERTO

Carlos Pérez Uralde Irrati-
Antzerkiaren Lehen Lehiaketa
[Primer Concurso de Radio Teatro
Carlos Pérez Uralde]

orrialdea-página 47

Antzerkiari buruzko
solasaldiak [Tertulias de teatro]

orrialdea-página 48

Bisita gidatuak

[Visitas guiadas]

orrialdea-página 48

Gizarte integraziorako antzerkia

[Teatro e integración social]

orrialdea-página 49

29 ostirala viernes

TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA

ONIRIC

Teatre Maset de Frater

orrialdea-página 49

INFORMAZIO

OROKORRA

INFORMACIÓN

GENERAL

orrialdea-página 50



NE M' OUBLIE PAS

Ez nazazu ahantz / No me olvides

Philippe Genty (Francia)

urriak 9 de octubre, 20:30 h.

Ametsen materialekin osatzen du Philippe Gentyk bere antzerki lana, antzerki aldi berean bisual, magiko eta hunkigarria.

Berrogeita hamar urtetik gora darama Philippe Gentyk amets-irudiz beteriko ikuskizunak sortzen. Behin baino gehiagotan bisitatu izan gaitu, *Zigmund Follies* eta *Ligne de Fuite* lanekin esaterako. Txotxongiloak, antzerkia, mimika, itzal-antzerkia, dantza, musika... horiek eta beste diziplina batzuen uztartzetik sorturiko bere antzerki lanak ez du parekorik, ez du beste ezeren antzik.

1992an sorturiko NE M' OUBLIE PAS (Ez nazazu ahantz) lanaren bitartez, antzezleak irudiak hitzaren beharrik gabe galdera existentzialak egiteko gaitasunaren gaia planteatzen du. Nort-Trøndelag-eko unibertsitatean (Norvegia) antzerki ikasketak amaitu berri dituzten artista gazteen laguntza izan du Gentyk bertsio berri honetarako, bai eta elementu gehigarri batena ere: izotz-eremu seguru asko betierekoen abestia.

■ Philippe Genty

El teatro de Philippe Genty tiene la textura de los sueños. Un teatro visual, mágico y emotivo a la vez.

Philippe Genty lleva más de cincuenta años creando espectáculos visuales llenos de ensñaciones, habiéndonos visitado en varias ocasiones a lo largo de su fructífera carrera con espectáculos como *Zigmund Follies* o *Ligne de Fuite*. Un teatro único que no se parece a nada, creado a partir de la fusión de diversas disciplinas artísticas como títeres, teatro, danza, mímica, teatro de sombras, luces, música...

NE M' OUBLIE PAS (No me olvides), creada en 1992, plantea si la imagen puede hacer preguntas existenciales sin usar palabras. Esta nueva versión se recrea con artistas jóvenes que han terminado sus estudios en la escuela de teatro de la Universidad de Nort-Trøndelag en Verdan, Noruega, añadiendo un elemento suplementario: la canción de las grandes extensiones árticas en medio de los hielos posiblemente eternos.

■ Philippe Genty

VITORIA/GASTEIZKO
NAZIOARTEKO XXXVIII.
ANTZERKI JAIALDIAREN
INAUGURAZIOA

INAUGURACIÓN DEL XXXVIII
FESTIVAL INTERNACIONAL
DE TEATRO DE
VITORIA-GASTEIZ

EGILEA
AUTOR
Philippe Genty

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Philippe Genty

ESTREINALDIA
ESPAINIAN
ESTRENO EN ESPAÑA

www.philippegenty.com

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 25 m
24 €, 18 €, 12 €

EMILIA

Claudio Tolcachir (España - Argentina)

urriak 11 de octubre, 20:30 h.

Claudio Tolcachir antzezle, zuzendari, antzerkidazle eta irakaslearen lehen agerpena sari ugari irabazitako *La omisión de la familia Coleman* da. Horrez gain, bere beste lan batzuk ere ikusi ahal izan dugu Gasteizen, esaterako *El viento en un violín*, *Tercer cuerpo*, eta *Todos eran mis hijos* lanaren antzerkirako egokitzapena.

Zalantzarik gabe Argentinako antzerki zuzendari handienetakoa den Tolcachirrek *Emilia* aurkeztuko du aurten Gasteizen. Bere konpainiak Buenos Airesen duen *Timbre 4* aretoan apirilean estreinatu ostean, oraingoan espainiar antzezle talde batekin emango du.

*Emilia*k Walterren istorioa kontatzen du. Walterrek oso haurtzaroa traumatikoa jasan izan du, munduaren errefusa min handiz bizi izan baitzuen; euskarri afektibo bakarra Emilia umezaina izan zuen.

Zer pentsa dezake maitasun kontratatua baino ezagutu ez duen gizonak, maitasunaren arauak afektua ordaindu beharra eskatzen dutela baino?

Galtzaileei buruzko istorio bat, beren izaez jakitun diren eta horrexegatik izututa dauden galtzaileei buruzkoa. Soilik familiaren biziraupenak justifikatzen duten geuzurez beteriko istorioa.

Claudio Tolcachir, actor, director, dramaturgo y docente hizo su primera incursión en el campo de la dramaturgia con la multi-premiada *La Omisión de la Familia Coleman*. Además de la citada obra hemos tenido la oportunidad de ver en nuestra ciudad sus mejores montajes como *El viento en un violín*, *Tercer cuerpo* o la adaptación al teatro de *Todos eran mis hijos*.

Sin duda uno de los grandes directores de escena argentinos, presenta en nuestro festival *Emilia*, estrenada el pasado mes de abril en la sala de su compañía *Timbre 4*, en Buenos Aires. Ahora la recompone con un elenco español en el que lleva trabajando muchos meses.

Emilia es la historia de un hombre, Walter, que sufrió enfermizamente la infancia, que vivió con mucho dolor el rechazo del mundo y que solo contó con su niñera, Emilia, como único afecto.

¿Puede ser que un hombre que solo conoció un amor contratado pueda entender por normalidad que las reglas del amor implican pagar por el afecto?

Una historia sobre perdedores conscientes y asustados de su condición. Una historia poblada de mentiras, de esas mentiras que se justifican por la supervivencia familiar.

SOLASALDIAK

[TERTULIAS]

Ikuskizunaren amaieran

Al finalizar el espectáculo

+ INFO orrialdea-página 48

EGILEA

AUTOR

Claudio Tolcachir

ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN

Claudio Tolcachir

ANTZEZLEAK

REPARTO

Gloria Muñoz (Emilia)

Alfonso Lara (Walter)

Malena Alterio (Caro)

David Castillo (Leo)

Daniel Grao (Gabriel)

ESTREINALDIA

EUSKADIN

ESTRENO EN EUSKADI

www.ptcteatro.com

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m
18 €, 12 €, 6 €





FARSAS Y ÉGLOGAS

Compañía Nacional de Teatro Clásico

Nao D'Amores (Madrid)

urriak 17 de octubre, 20:30 h.

Musikaren eta Antzezte Arteen Institutu Nazionalaren atal bat da Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionala, XX. mendearen aurretiko antzerki ondarea berreskuratuz, zaindu, ekoiztu eta zabaltzeaz arduratzen dena, bereziki Urrezko Mendeko ondarea.

Nao d'Amores

2001ean jaio zen *Nao d'amores*, antzerki klasikotik, txotxongiloen mundutik eta Aitzin Aroko musikatik sortuta. Ana Zamoraren zuzendaritzapean, Erdi Aroko eta Errenazimenduko antzerkiaren inguruan ikerkuntza, praktikatzea eta sorkuntza aritzen da.

Farsas y églogas.

Ana Zamora eta bere konpainiak dramaturgia pertsonal bat osatu du Salamancan zazpi piezaz osaturik 1514ean argitaratu zen liburuko bost oinarri hartuta. Ogiari ogi eta esnari esne, ikuskizun honetan artzainak eta nekazaritza giroko jendeak berezko duten zintzotasunez mintzo dira.

**Hitza, musika eta dantza bitarte, oztopo guztiak gaindituz, maitasun beti garai-
learen gaia jorratuko du *Nao d'amores*
konpainiak, aldi berean herrikoia-
ren aldiria eta zentzumenen festa den ikuskizun
nonen bidez.**

La Compañía Nacional de Teatro Clásico es una unidad de producción del Instituto Nacional de las Artes Escénicas y la Música que tiene como misión la recuperación, preservación, producción y difusión del patrimonio teatral anterior al siglo XX, con especial atención al Siglo de Oro.

Nao d'Amores

En el año 2001 nació *Nao d'amores*, colectivo de profesionales procedentes del teatro clásico, los títeres y la música antigua, que bajo la dirección de Ana Zamora, desarrolla una labor de investigación, formación y creación en torno al teatro medieval y renacentista.

Farsas y églogas

Ana Zamora y su compañía han elaborado una dramaturgia personal con cinco piezas que conforman un conjunto original de las siete reunidas en un volumen fechado en Salamanca en 1514, construyendo con ellas un espectáculo en el que los pastores y las gentes rurales se expresan en toda su sinceridad.

Mediante el empleo del texto, la música y de la danza, *Nao d'amores* ha puesto en pie una fiesta para los sentidos que reivindica con pasión lo popular, situando en el centro el tema del amor que, a pesar de los obstáculos, se eleva siempre victorioso.

EGILEA

AUTOR

Lucas Fernández

ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN

Ana Zamora

ANTZEZLEAK

REPARTO

Sergio Adillo

Eva Jorret

José Vicente Ramos

Elena Rayos

María Alejandra Saturno

Juan Pedro Schwartz

Alejandro Sigüenza

Isabel Zamora

KONPAINIA

COMPAÑÍA

Una coproducción de

Compañía Nacional

de Teatro Clásico,

Nao D'Amores

ESTREINALDIA

EUSKADIN

ESTRENO EN EUSKADI

www.naodamores.com

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 15 m

14 €, 10 €, 5 €



KEPA JUNKERA ARA MALIKIAN & LA ORQUESTA DEL TEJADO

Un viaje en el tiempo (País Vasco/Madrid)

urriak 18 de octubre, 20:30 h.

Kepa Junkera trikitilari bilbotarrak eta Libanoko Ara Malikian biolin-joleak *Un viaje en el tiempo* fusio-kontzertua eskainiko digute. Entzuleek Junkerak eta Malikianek sorturiko abestiez gozatu ahal izango dute, baita Euskal Herriko eta Armeniako aire tradizionalak ere, Libanoko biolin-jolearen ganbara-musikako taldeak propio moldatuta. Musika horiek kultura eta tradizio desberdinetako bi pertsonalitate islatzen dituzte, nahiz bi-biak birtuosoak izan.

Kepa Junkera konpositore, ekoizle eta musikari bilbotarra musika tradizionalaren bide-tik abiatu da, baina estilo propioa sortu du, ibilbide benetan pertsonal baten ezaugarri. Nazioartean sona handien lortu duen Euskadiko musikariaren artean dago. Junkeraren lana tradizioan sakon errotuta dagoen arren, mugarik gabeko musika garatu du, beste leku eta beste kultura batzuetako usain, kolore eta erritmoekin nahasia.

Ara Malikian Armeniako familia batean jaio da. Zalantzarik gabe, bere belaunaldiko biolin-jole distiratsu eta adierazkorrenetakoa da. Berrezko estiloaren jabe da Malikian, eta bere biolina gaur egungo musikaren ahots original eta berritzaileenetakoa batez janzten asmatu du.

El trikitilari bilbaíno Kepa Junkera y el violinista libanés Ara Malikian nos ofrecen *Un viaje en el tiempo*, un concierto de fusión, donde el público puede disfrutar de canciones de Junkera y Malikian, así como de obras populares vascas y armenias arregladas para la ocasión por el conjunto de música de cámara del violinista libanés. Músicas que reflejan dos personalidades de culturas y tradiciones diferentes, pero que coinciden en su virtuosismo.

El compositor, productor y músico bilbaíno **Kepa Junkera** comenzó su viaje por el mundo de la música tradicional, creando un estilo propio y marcando un camino personal que le ha llevado a convertirse en uno de los músicos más internacionales de Euskadi. Aunque sus trabajos están hondamente enraizados en la tradición, Kepa Junkera ha creado una música sin fronteras, mezclada con los aromas, ritmos y colores de otros lugares y otras culturas.

Nacido en el Líbano en el seno de una familia Armenia, **Ara Malikian** es sin duda uno de los más brillantes y expresivos violinistas de su generación. Poseedor de un estilo propio, su violín se alza como una de las voces más originales e innovadoras del panorama musical.

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

18 €, 12 €, 6 €

LEBENSRAUM

Jakop Ahlbom (Holanda)

urriak 24 de octubre, 20:30 h.

Aspaldidanik uztartzen ditu Jakop Ahlbomek antzerkia, mimika, dantza, musika eta ilusioen mundua, antzerkia bera baino zerbait zabalagoa sortuaz.

Jakop Ahlbomen lan berria Buster Ketonean oinarritzen da. Keatonen garaian, pianoaren musikak laguntzen zuen zine mutua. *Lebensraum* lanean ere zuzeneko musika izango da, baina 20.eko hamarkadako soinu ez bezala, Alamo Race Track-ek eta Jakop Ahlbomek eszenografia modernoa osatu dute, nahiz garaiko estiloa gordeaz.

Bi gizon gela guztiz txiki batean bizi dira, baina irudimen handikoak bi-biak espazio urria ez dute arazo. Objektu orori funtzio bat baino gehiago emango diote; hartara, ohea piano ere izango da, apalategia hozkailu ere bihurtuko dute. Emakume gabezia konpontzeko, garbitzaile mekanikoa sortuko dute bien artean. Baina asmakizuna ustel gertatuko zaie, benetakorrot.

Ikuskizun ederra benetan, zoragarria, orijinala eta guztiz dibertigarria. Aukera paregabea artista errebelazio honen maisutasuna ezagutzeko.

Jakop Ahlbom ha trabajado durante años en su marca teatral única, en la que se unen el teatro, la mímica, la danza, la música y el mundo de las ilusiones como si fueran una. Con su propia mezcla de disciplinas crea imágenes más inmensas que el propio teatro.

Esta nueva pieza de Ahlbom está inspirada en la obra de Buster Keaton. Por aquél entonces, las películas mudas como las de Keaton estaban acompañadas por la música de piano. En la obra *Lebensraum* se interpreta la música en directo, pero en contraste con el sonido de los años 20, Alamo y Jakop Ahlbom crean una escenografía moderna, sin perder el estilo convencional de dichos años.

Dos hombres que viven juntos en una diminuta habitación. Ingeniosos como son, la falta de espacio no es un problema. Todo tiene múltiples funciones: la cama se convierte en piano y la estantería sirve como frigorífico. Para compensar la ausencia de una mujer, ambos crean una empleada de la limpieza mecánica. Pero el invento resulta un verdadero fracaso.

Un espectáculo irrepetible, original, maravilloso, tremendamente divertido. Una ocasión única para conocer la maestría de este gran artista revelación de la escena europea.

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Jakop Ahlbom

JATORRIZKO IDEIA
ETA ANTZEZLEAK
IDEA, REPARTO
Jakop Ahlbom
Reinier Schimmel
Silke Hundertmark
Leonard Lucieer
Ralph Mulder

MUSIKA MÚSICA
Alamo Race Track

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

Testurik gabe
Espectáculo sin texto

www.jakopahlbom.nl

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m
18 €, 12 €, 6 €





EL RÉGIMEN DEL PIENSO

La Zaranda

Teatro Inestable de Andalucía la Baja (Andalucía)

urriak 25 de octubre, 20:30 h.

Hogeita hamabost urte baino gehiago pasa dira La Zaranda antzerki taldeak bere ibilbideari hasiera eman zionetik, eta harez geroztik, nazioartean ospe handia eman dion sortze lan handia egin du. Taldearen ibilbidearen ezaugarri izan dira konpromiso existentziala batetik, eta sinbologia unibertsala beren sustrai tradizionalen bitartez islatzeko ahalegina, bestetik.

La Zaranda taldea mamiaren bila aritu izan da beti, baztertu egin izan du bigarren mailakoa; formula estereotipatu edo iragankorretatik urrun, bere antzerki-poetikaren emaitza oromena jorratu eta hausnarketarako deia egin nahi duen berezko lengoaia da.

El régimen del pienso

Zantzu guztien arabera, elikadurarekin zerikusia duen zerbait dago epidemiaren atzean. Batzuen ustez gizentze azkarra da arrazoia; beste batzuk txerriei pentsu gehiegi ematea, edo gaizki banatzea. Albaitaritzak aurre egin nahi dio epidemiari, baina ezin du txerrikietako hilkortasun-tasa jaisten asmatu. Txerriekin industriari eragin dio, eta bertako langileak kaleratzen hasi dira, errendimendu-indizeen arabera. Lanpostuarekiko borroka tarteko, txerri eta gizakien bizitzak nahastu egin dira.

Talde klasikoa da La Zaranda gure jaialdian (*Homenaje a los malditos, Futuros difuntos, ...*); beste lan eder batekin datorkigu oraingon, betiere beren ildo dramatikoa irarriki.

Han transcurrido casi treinta y cinco años desde que La Zaranda emprendiera su andadura teatral, realizando una intensa labor creativa que le ha valido un gran prestigio internacional. Su trayectoria tiene como constantes teatrales: el compromiso existencial y el partir de sus raíces tradicionales para revelar una simbología universal.

Como cernidor que preserva lo esencial y desecha lo inservible, desarrolla una poética teatral que, lejos de fórmulas estereotipadas o efímeras, se ha consolidado en un lenguaje propio, que siempre intenta evocar a la memoria e invitar a la reflexión.

El régimen del pienso

Todo apunta al factor nutricional como causa de la epidemia. Unos sostienen que es el engorde rápido, el exceso de pienso, otros apuntan al mal reparto de este. Las teorías veterinarias enfrentan pero no frenan el índice de mortandad en las pocilgas... La industria porcina comienza a verse afectada, su personal eliminado según los índices de rendimiento. La lucha por el puesto hace que las vidas del cerdo y el hombre se crucen, se confundan.

La Zaranda, (*Homenaje a los malditos, Futuros difuntos...*); un clásico de nuestro festival vuelve con otro espléndido trabajo, fieles a su línea dramática.

EGILEA AUTOR
Eusebio Calonge

**ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN**
Paco de La Zaranda

**ANTZEZLEAK
REPARTO**
Gaspar Campuzano
Francisco Sánchez
Luis Enrique Bustos
Javier Semprún

La Zaranda eta
Temporada Alta
antzerki jaialdiaren
arteko koprodukzioa
Una coproducción
de La Zaranda con el
Festival Temporada Alta

www.lazaranda.net

a

**JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL**

**TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA**

1 h 30 m

14 €, 10 €, 5 €

EL SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO

Adaptación del clásico de Shakespeare

Ballet Carmen Roche (Madrid)

urriak 30 de octubre, 20:30 h.

2012-2013 denboraldian, Carmen Roche balletak ikusle helduak harritu nahi ditu, gaur eguneko lan bat eskainiz, Shakespearearen *El sueño de una noche de verano* antzezlanean oinarritzen bada ere.

Ikuskizunak antzerki idazle ingelesaren funtsezko osagaiak, gai unibertsalak, ukitzen ditu: heriotza, maitasuna, sumina edo bekaizkeria, alegiazko pertsonaiaz eta magia trikimailuz betetako mundu magiko bat oinarritzat hartuta, ikuslea liluratu eta bestelako mundu batean murgilarazteko.

Dantzak bateratzen ditu osagai horiek guztiak. Horixe izango da lanaren protagonista nagusia, **Tony Fabre** bikainaren koreografiari esker; haren hizkuntza aparteko eta musikalak arteaz gozatzen eta istorioan barneratzen lagunduko digu.

Henry Purcell musikari barrokoaren musika sarkorrak bideratuko du koreografia.

Kalitate tekniko handiko sei dantzari dira lanaren protagonistak. Guztira bederatz pertsonaia gorpuztuko dituzte, mundu magikoa eta mundu erreala lotuz.

El Ballet Carmen Roche para la temporada 2012-2013 quiere sorprender al público adulto con una obra actual, pero basada en el clásico de Shakespeare *El sueño de una noche de verano*.

Así el espectáculo incorpora los elementos esenciales de la obra del dramaturgo inglés, la universalidad de sus temas: la muerte, el amor, la ira o la envidia; y parte de ese mundo mágico de personajes de fábula, de trucos de magia, que permiten sorprender al espectador y adentrarlo en un mundo diferente.

Todos estos ingredientes se unifican con un elemento principal: la danza. Ella será la principal protagonista de nuestra obra, que contará con la coreografía del genial **Tony Fabre**, cuyo lenguaje único y musical, nos hará disfrutar de este arte y adentrarnos en la historia.

Una coreografía que irá unida a la envolvente música del compositor barroco Henry Purcell.

Seis bailarines de gran calidad técnica, son los principales protagonistas de la obra. Ellos enlazarán el mundo mágico y el mundo real, llegando a desarrollar un total de nueve personajes.

EGILEA
AUTOR
William Shakespeare

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Carmen Roche

KOREOGRAFIA
COREOGRAFÍA
Tony Fabre

MUSIKA
MÚSICA
Henry Purcell

www.balletcarmenroche.com



TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 10 m
18 €, 12 €, 6 €



de

W



MARIDOS Y MUJERES

Woody Allen

Teatro de la Abadía (Madrid)

azaroak 1 de noviembre, 20:30 h.

Àlex Rigolak antzerkirako moldatu du estreinakoz bikote harremanen konplexutasunari buruzko gidoi burutsu hau, zeinean ezkontideen gatazken azpian dauden bizitzako inertzia eta segurtasun falta erakusten baitira, alegia, barne-barneko sentipenak, eta guztiok lotsaz –edo lotsarik gabe– geure burua islatuta ikus dezakegu horietan.

Bikote harremanen erretratu gordin eta lizuna. Woody Allenen lan honetan testua irudiaren gainetik dago, eta gogoeta filosofikoak irakurle-ikusleari zuzen-zuzenean helarazteko gaitasuna du. Umorea biderik errazena da gure gatazka sutsuenei heltzeko. Umorea adimen ezaugarria baita, lagunekin edo bikotekidearekin ditudan arazoak gorabehera, gure artekoak baduela zentzurik erakusten didan zantzua.

Teatro de la Abadía-ren produkzio handia, New Yorkeko zinemagilearen testu adimentsu eta gordinarentzat maila goreneko antzezle taldea osatu duena.

Àlex Rigola adapta por primera vez al teatro este brillante guión en torno a la complejidad de las relaciones de pareja, donde a través de los conflictos matrimoniales subyace también la inercia vital y las inseguridades, sentimientos íntimos a través de los que todos podemos sentirnos vergonzosamente -o no reflejados.

Un retrato crudo y obscuro de las relaciones de pareja. Un Woody Allen donde la escritura sobrepasa a la parte visual y que tiene la habilidad de transmitir sus pensamientos filosóficos al lector-espectador de la forma más directa. Donde el humor sigue siendo el camino más llano para abordar nuestros conflictos más intensos. El humor, ese gran rasgo de inteligencia, que cuando se produce es el signo que me indica que a pesar de los problemas que tengamos con mis amigos o con mi pareja todo sigue teniendo sentido entre nosotros.

Una gran producción del teatro de la Abadía, con un reparto de altura para un texto inteligente y descarnado del cineasta neoyorquino.

SOLASALDIAK

[TERTULIAS]

Ikuskizunaren amaieran

Al finalizar el espectáculo

+ INFO orrialdea-página 48

EGILEA

AUTOR

Woody Allen

ZUZENDARI ETA

ANTZERKIRAKO

EGOKITZAILEA

DIRECCIÓN Y

VERSIÓN TEATRAL

Àlex Rigola

ANTZEZLEAK

REPARTO

Luis Bermejo

Miranda Gas

Elisabet Gelabert

Nuria Mencía

Fernando Soto

José Luis Torrijos

ESTREINALDIA

EUSKADIN

ESTRENO EN EUSKADI

www.teatroabadia.com

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m

18 €, 12 €, 6 €



BIENVENIDO A CASA

Pequeño teatro de Morondanga (Uruguay)
azaroak 7 y 8 de noviembre, 20:30 h.

Bienvenido a casa giza-miseriei buruzko komedia beltza da. Antzezlan honek ikusleen begiradari egin beharko dio aurre, bertan agertzen diren guztiak epaituak izango diren beiratea bailitzan. Parez pareko bi istorio biltzen ditu lanak, bi egunetan emanak. Komedia-arimak animatuta ekin beharko liokete ikusleek.

Izan ere, zenbait gertakari izango dituzte aurrean, eta, ezinbestean, epaitu egingo dituzte, nork bere subjektibotasunetik. Alabaina, bigarren egunean, beste ikuspegi batetik egingo diote aurre egoera berberari, eta, une batez bederen, "izaki objektibo" bihurtuko dira.

Zalantzarik gabe, aurtengo jaialdiaren lan ausart eta abangoardiakoenetako baten aurrean gaude, ariketa dramatiko gisa ikusleek harrapatu egingo dituen *voyeur* jolasa planteatzen duena.

Enmarcada en una historia delirante, *Bienvenido a casa* es una comedia negra sobre la miseria humana. Agobiada por el destino del increíble hombre elefante, la obra es expuesta a la mirada del público como una vidriera donde todos son juzgados abiertamente. Dos historias yuxtapuestas durante dos días en donde el espectador nunca debería perder el espíritu de comedia.

El espectador desde su subjetividad se enfrenta a determinados acontecimientos que inevitablemente juzgará, pero que posteriormente, el segundo día, al observar la situación de otro ángulo o punto de vista, dejará de ser subjetivo por un instante y se convertirá en "ser objetivo".

Sin duda una de las propuestas más valientes y vanguardistas de esta edición, propone un ejercicio dramático, un juego *voyeur* al que el espectador no podrá resistirse.

TALDE/GRUPO 1

AZAROAK 7a

Lehenengo saioa: 20:30etan (60 min.)

Bigarren saioa: azaroak 8a, 19:15etan (75 min.)

7 DE NOVIEMBRE

Primera parte: 20:30 h. (60 min.)

Segunda parte: 8 de noviembre a las 19:15 h. (75 min.)

TALDE/GRUPO 2

AZAROAK 8a

Lehenengo saioa: 19:30etan (60 min.)

Bigarren saioa: azaroak 8a, 22:30etan (75 min.)

8 DE NOVIEMBRE:

Primera parte: 19:30 h. (60 min.)

Segunda parte: 22:30 h. (75 min.)

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Roberto Suárez

ANTZEZLEAK
REPARTO
Sergio Gorfain
Chiara Hourcade
Soledad Pelayo
Oscar Pernas
Mariano Prince
Mario Rodríguez
Gustavo Suárez
Rafael Soliwoda

LEKU MUGATUAK
AFORO LIMITADO

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

Precio/salneurria 24 €
(las dos sesiones/bi saioak barne)
descuentos habituales./ohiko deskontuak

MISÁNTROPO

Molière

Kamikaze producciones (Madrid)

azaroak 9 de noviembre, 20:30 h.

Misántropo Kamikaze producciones taldearen hirugarren lana da, *La función por hacer* eta *Veraneantes* lanen ondoren taxututakoa; gure antzokian aipatutako horiek gozatzeko parada izan dugu.

Oraingoan bertsio bat egin dute, Miguel del Arco zuzendariaren hitzetan, "galdera, zalantza, duda-muda, emozioz betea... Izan ere, horrela ekin genion Molièreren Misántropo testu mitikoa lantzeari. Arakatu, sakondu, ikertu. Testua geureganatu. Alceste, Celimena eta Molièreren gainerako pertsonaiak estreinatu berri dugun XXI. mende gorabeheratsuko emakumeak eta gizonak bezala mintza daitezten. Eta alai egiten dugu, Molière egilea, zuzendaria, aktorea eta enpresaburua gure ondoan sentitzeagatik".

Lan horretan estatuko agertokietan dagoeneko ospetsu bihurtu diren aktoreek hartzen dute parte, Israel Elejalde eta Bárbara Lennie, besteak beste.

Miguel del Arco zuzendari, idazle eta gidogilea gaur eguneko antzerki zuzendari onenetakoen artean sartzen dute, eta azken urteetan plazaratutako antzezlan nabarmenetako batzuk zuzendu ditu aipatutakoez gain: *De ratones y hombres*, *Deseo*, *Juicio a una zorra*, *la violación de Lucrecia*...

Misántropo es el tercer trabajo de Kamikaze producciones tras *La función por hacer* y *Veraneantes*, obras que hemos tenido oportunidad de disfrutar en nuestro teatro.

Ahora realizan una versión, en palabras de su director Miguel del Arco, llena de "interrogantes, dudas, inseguridades, de emoción... Así comenzamos el abordaje de un texto mítico como el Misántropo de Molière. Escarbar, profundizar, investigar. Hacer el texto nuestro. Para que Alceste, Celimena y todos los demás personajes de Molière se expresen como hombres y mujeres de nuestro convulso y recién estrenado siglo XXI. Y lo hacemos con la alegría de sentir a Molière, autor, director, actor y empresario a nuestro lado".

Cuentan para este trabajo con actores y actrices ya consagrados dentro de la escena nacional, como Israel Elejalde y Bárbara Lennie entre otros.

El director, autor y guionista Miguel del Arco –considerado uno de los mejores directores de escena de hoy en día– ha sido protagonista de las obras más destacadas de teatro en los últimos años como las ya citadas y *De ratones y hombres*, *Deseo*, *Juicio a una zorra*, *la violación de Lucrecia*... entre otras.

EGILEA
AUTOR
Molière

ZUZENDARITZA ETA
BERTSIOGILEA
DIRECCIÓN Y
VERSIÓN
Miguel del Arco

ANTZEZLEAK
REPARTO
Israel Elejalde
Bárbara Lennie
José Luis Martínez
Miriam Montilla
Manuela Paso
Raúl Prieto
Cristóbal Suárez

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

www.kamikaze-
producciones.es

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m
18 €, 12 €, 6 €





QUIÉN TEME A VIRGINIA WOOLF

Teatre Romea (Cataluña)

azaroak 15 de noviembre, 20:30 h.

¿Quién teme a Virginia Woolf? (1961-62) Edward Albee amerikarraren maisu-lana da.

Carmen Machi eta **Pere Arquillué** gorpuzten dituzte George eta Martharen paperak. Biek elkar maite eta behar dute, ondo baino hobeto ezagutzen dituzte elkarren ahultasunak eta nola aurpegiatu elkarri. George Historia irakaslea da; haren emazte Martha, unibertsitateko errektorearen alaba. Biak frustratuta sentitzen dira, eta alkoholismo arazo larria dute.

Larunbat gau batean eskolako beste irakasle batekin eta haren emaztearekin bilduko dira, eta gau atsegina zirudiena amesgaizto bihurtuko da.

Quién teme a Virginia Woolf garaiko gizarte amerikarraren erretratua da, eta gaitz nazional baten azterketa: bikotekidea engainatzea. Gizakiak bikotean, konpainian nola bizi diren eta makineria konplexu horrek nola funtzionatzen duen aztertzen du. Gizonak eta emakumeak elkarri josteko makina baita.

Daniel Veronese zuzendari argentinarrak bere antzezlan guztietan ezartzen duen muntatze zirrargarriak giro itogarria sorrarazten du, karga dramatiko izugarrikoa, antzezle talde bikainaren konplizitatearekin.

¿Quién teme a Virginia Woolf? (1961-62) es la obra maestra del americano Edward Albee.

Carmen Machi y **Pere Arquillué** dan vida a George y Martha. Ambos se quieren y se necesitan, conocen perfectamente sus debilidades y cómo increparse mutuamente. George es un profesor de historia, Martha es su mujer y la hija del rector de la universidad. Ambos se sienten frustrados y tienen graves problemas de alcoholismo.

Un sábado noche se reúnen con otro profesor de la escuela y su mujer, y lo que empieza como una agradable velada acaba como una auténtica pesadilla.

Quién teme a Virginia Woolf es el retrato de la sociedad americana del momento y el análisis de un mal nacional: el engaño a la pareja. Una obra que manifiesta la compleja maquinaria sobre la vida humana en pareja, en compañía. Una máquina de coser hombres y mujeres.

El montaje trepidante que el director argentino Daniel Veronese imprime en todos sus montajes confiere a esta obra un ambiente asfixiante con una carga dramática excepcional, con la complicidad de un extraordinario elenco.

EGILEA

AUTOR

Edward Albee

ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN

Daniel Veronese

ANTZEZLEAK

REPARTO

Carmen Machi

Pere Arquillué

Mireia Aixalá

Ernest Villegas

www.focus.es

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 35 m

24 €, 18 €, 12 €

HITZAK, BESTERIK EZ

euskaraz

Hika teatroa (País Vasco)

azaroak 20 de noviembre, 20:30 h.

Istorio hau gaizki tratatuak izan diren emakumeak, edo are okerrago, tratatu txarrak jasaten dituztenak ulertzeko sortua izan da. Euren bizitza hilda dagoela jakinda ere, zergatik jarraitzen dute hortxe, toki berean, mugitu ezinik, beren maitez errukituz. Zergatik?

■ Agurtzane Intxaurreaga

Hiru emakume eta gizon bat. Eta umea.

Emakume gaztea, maite duen gizonarekin ezkondu berria. Zorionaren ispilu. Emakume heldua, maite zuen gizonarekin aspaldi ezkondua, gatazka etengabea. Zorigaitzaren ispilu. Emakume zaharra, gizonik maite izan ote duen ahaztuta, zoramenaren ispilu, (baina ispiluaren atzean aske eta zorionsu izan litekeela jakitun).

Emakume gaztea ezkondu da maite eta desio duen gizonarekin, bizitza osoan zorionsu izateko ilusioz. Emakume helduak jakin arazi nahi dio bera ere halaxe ezkondu zela orain urte batzuk, baina gero zerbaitek krak egin zuela harremanean. Emakume zaharrak berak egin zuen krak munduan gehien maite zuen pertsona galdu zuenean. Harrezkero, ez dio inori aholkurik ematen. Izar iheskorak harra-patuz bizi da umearekin.

Una obra que nos habla de mujeres que han sido maltratadas o, peor aún, mujeres que sufren malos tratos. Aún a sabiendas de que así viven sin vivir ¿porqué seguir ahí, en el mismo sitio, sin poder escapar, apiadándose del que las maltrata? ¿porqué?

■ Agurtzane Intxaurreaga

Tres mujeres y un hombre. Y un niño.

Una mujer joven, recién casada con el hombre al que quiere. Viva imagen de la felicidad. Una mujer madura, casada hace tiempo con el hombre al que quiso, y en continuo conflicto. Viva imagen de la infelicidad. Una mujer mayor, que ha olvidado si amó, imagen de la locura, (pero sabedora de que podría ser feliz tras el espejo).

La mujer joven se ha casado con el hombre al que quiere y desea, con la ilusión de ser feliz toda su vida. La mujer madura quiere hacerle ver que ella también se casó, hace ya tiempo, con el mismo deseo, pero luego algo ocurrió, la relación hizo crack. La mujer mayor también hizo crack, cuando perdió a aquel a quien más amó. Desde entonces no da consejos, a nadie. Y vive atrapando estrellas fugaces, con un niño.

EGILEA

AUTOR

Agurtzane Intxaurreaga

ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN

Agurtzane Intxaurreaga

ANTZEZLEAK

REPARTO

Ane Pikaza

Ainhoa Aierbe

Klara Badiola

Agurtzane Intxaurreaga

Jabi Barandiaran

Umearen ahotsa

eta manipulazioa:

Agurtzane Intxaurreaga

www.hikateatroa.com

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 15 m.

14 €, 10 €





NADA TRAS LA PUERTA

Traspasos Kultur

Centro Dramático Nacional (País Vasco, Madrid)

azaroak 23 de noviembre, 20:30 h.

Nada tras la puerta lana osatzen duten tes-tuak entsegu bakoitzean berridazten dira, egileek –antzerki garaikideko idazle handiak denak– zazpi aktoreek osatutako taldearekin batera egiten baitute lan, agertokian bertan idaztea dei genezakeen metodologia baliatuz, elkarren artean uztartzeko gai benetan zail eta korapilatsu horretan barneratzen gaituen eszenaratzean.

Lana agertokira eramateko Hernán Zin idazle eta gerra erreportariaren laguntza, argibideak eta, orenen gainera, jakinduria izan dugu.

Nada tras la puerta izenburua da, harridura edo galdera ikurra. Duela gutxira arte argi zegoen zer ziren mugak-ateak. Gure estatusa eta bizitza kalitatea babestu eta defendatzen zuten. Argi bereizten zituzten Iparra eta Hegoa. Ate haiek erraz irekitzen ziren hegoalderantz, baina nekez igarotzen ziren kontrako norabidean. Orain mugak lurrean klaronez marraztutako lerroak dira.

Mikel Gómez de Segura gasteiztarra arduratu da osagai horiek guztiak itxuratu eta zuzentzeaz.

Nada tras la puerta giza eskubideei eta horiei buruz dugun ikuspegiari buruzko go-goeta da artistikoa da.

SOLASALDIAK

[TERTULIAS]

Ikuskizunaren amaieran

Al finalizar el espectáculo

+ INFO orrialdea-página 48

Los textos que conforman *Nada tras la puerta* siguen reescribiéndose en cada ensayo, los autores –todos ellos grandes dramaturgos de la escena contemporánea–, trabajan junto al elenco formado por siete actores y actrices en una metodología que podríamos denominar de escritura a pie de escenario, para entrelazarse unos con otros en una puesta en escena que nos mete en tan complicado y delicado tema.

En esta obra contamos con la colaboración, información y, sobre todo, conocimiento de Hernán Zin, escritor y reportero de guerra.

Nada tras la puerta es un título, una admiración o un interrogante. Hasta hace poco tiempo las fronteras-puertas estaban claras. Protegían y defendían nuestro estatus y calidad de vida. Dividían claramente el Norte del Sur. Eran puertas que se abrían fácilmente hacia el sur pero que resultaban difíciles de superar en la dirección inversa. Ahora las fronteras son trozos de tiza en el suelo.

El vitoriano Mikel Gómez de Segura es el encargado dirigir y dar forma a todos estos elementos.

Nada tras la puerta es una reflexión artística sobre los Derechos Humanos y el cómo son percibidos.

ZUZENDARITZA

DIRECCIÓN

Mikel Gómez de Segura

ANTZEZLEAK REPARTO

Chema Adeva

Ángela Cremonte

Sandra Ferrús

Carolina Lapausa

Marta Larralde

Lidia Navarro

Alfonso Torregrosa

DRAMATURGIA

Juan Cavestany

José Manuel Mora

Borja Ortiz de Gandra

Yolanda Pallín

Laila Ripoll

DOKUMENTAZIOA

ETA AHOLKULARITZA

DOCUMENTACIÓN Y

ASESORAMIENTO

Hernán Zin

ESTREINALDIA

EUSKADIN

ESTRENO EN EUSKADI

www.traspasoskultur.com

a

JAIALDI ABONUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 15 m

18 €, 12 €, 6 €

JAIALDIA

GIZARTE

ETXEETAN

EL FESTIVAL

EN LOS

CENTROS

CÍVICOS

JAIALDIA GIZARTE

ETXEETAN

EL FESTIVAL EN LOS

CENTROS CÍVICOS

OPPERETTA

Cor de Teatre (Cataluña)

urriak 31 de octubre, 20:30 h.

Hona opera egiteko modu bitxi eta benetan dibertigarria. Irudimen handiz, genero lirikoa ezagutzeko aukera ematen du *Operettak*, betiere a capella musika eta umorea lagun.

Elementu komikoz beteriko antzezenak keinu bidezko antzerkiaren erritmoa eta adierazkortasuna eta operaren edertasun eta fintasuna uztartzen ditu.

Beraz, *Operetta* munduan diren bi hizkuntza unibertsalenak biltzearen emaitza da: ahozko musika eta keinu-antzerkia.

Musika, erritmoa, umorea eta ikusgarritasuna.... Harrapatu egingo zaitu!

Una divertidísima y singular forma de interpretar ópera. Con grandes dosis de imaginación *Operetta* ofrece la oportunidad de descubrir el género lírico con la complicidad de la música a capella y el humor.

La acción teatral, repleta de elementos cómicos, ofrece una experiencia única, híbrida; fruto imposible de la suma del ritmo y la expresividad del teatro gestual con la delicadeza y la belleza de la ópera.

Así pues *Operetta* es una potente mezcla de los dos lenguajes más universales: la música vocal y el teatro gestual.

Un espectáculo que atrapa al público por su música, ritmo, humor y gran fuerza visual.



DRAMATURGIA ETA
ZUZENDARITZA ARTIS-
TIKOA DRAMATURGIA Y
DIRECCIÓN ESCÉNICA
Jordi Purí

ZUZENDARITZA
MUSIKALA DIRECCIÓN
MUSICAL
David Costa

MOLDAKETAK ARREGLOS
Pere Mateu Xiberta
Esteve Palet Mir

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

www.cordeteatre.com

a

IKUSKIZUNA
IBAIONDON
EL ESPECTÁCULO
EN IBAIONDO

TEATRO
FÉLIX PETITE
ANTZOKIA

1 h 15 m
12 €

AVENTURA!

Alfredo Sanzol y T de teatro (Cataluña)

azaroak 21 de noviembre, 20:30 h.

*"Bartzelonako enpresa bateko sei bazkideren istorioa kontatzen du **Aventura!** antzezlanak. Ez dihoakio gaizki enpresari, baina Txinatik hura erosteko eskaintza jaso ostean, epelkeriei utzi eta –aurrerantzean zer gerta ere–, enpresa saltzea erabaki dute. Alabaina ez dute enpresa salduko, bazkideetako bat bai-zik, horra arazoa!!!*

Pertsonaiak beldurrak itota daudelarik, "inoiz egingo ez luketena" egiten amaituko dute. Beldurra da gure ahultasun handiena. Lan honen mendean hartu nahi du beldurra, begien aurrean mamu kolektibo bat ipinita: esklabo bihurtzearen mamua alegia". ■ Alfredo Sanzol

Hainbat lan zuzendu ditu **Alfredo Sanzol** nafarrak, besteak beste: *Risas y destrucción* (2005); *Sí, pero no lo soy* eta *Días estupendos*.

"Aventura! cuenta la historia de seis socios de Barcelona que tienen una empresa que no va mal pero que, al recibir una oferta de compra por parte de una empresa china, deciden dejarse de tonterías y vender por lo que pueda pasar. El problema es que no venden la empresa, sino que acaban vendiendo a una de sus socias.

*En **Aventura!** los personajes están atenazados por el miedo y acaban haciendo algo que "nunca harían". Creo que nuestra mayor fragilidad es el miedo, y esta obra intenta reducirlo poniendo delante de los ojos un fantasma colectivo: el de convertirnos en esclavos." ■ Alfredo Sanzol*

Alfredo Sanzol ha escrito y dirigido entre otros *Risas y destrucción* (2005), *Sí, pero no lo soy* y *Días estupendos*.



© David Ruano

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

EGILEA AUTOR
Alfredo Sanzol

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Alfredo Sanzol

ANTZEZLEAK
REPARTO
Mamen Duch
Marta Pérez
Carme Pla
Albert Ribalta
Jordi Rico
Ágata Roca

a

IKUSKIZUNA
IBAIONDON
EL ESPECTÁCULO
EN IBAIONDO

TEATRO
FÉLIX PETITE
ANTZOKIA

www.ventura-tdeatre.com

1 h 40 m (aprox.)
12 €

TEMPESTAD

Barco Pirata (Madrid)

urriak 16 de octubre, 20:30 h.

Shakespearearen testamentu literario gisa har dezakegu *La tempestad*, hark idatzitako azken lana baita. Nekez sar genezake lan hau genero jakin baten, tragedia, komedia eta maitasun istorioa uztartzen baititu.

Bertsio honetan, antzezleak fikzioan jokatzen dute, oraintxe errealitate dirudien arren, eta oraintxe, berriro ere ipuin, BIZITZA mintzo den ipuin. Bost antzezlek hogeit hamar pertsonaia jokatuko dituzte, zirkuko malabarismoa dirudien jolasean!. Bost ekitalditan antolatzen da antzezlan.

Antzerkizaleek inolaz ere galdu beharko ez luketen antzezlan, irudimena, ekintza, jakinduria, ustekabeak, emozioak, sentsazioak... Irla magiko batean lehorreratzeko beldur ez diren ikusle ausartentzako lana. Ezinbestekoa.

La tempestad representa para nosotros, por ser el último escrito del Bardo, el testamento de Shakespeare. Es difícil identificarla con un género concreto, pues mezcla tragedia, comedia y romance.

